

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2385

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 10ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, turismoa suspertzeko laguntzak ezartzen dituen aginduek finkatutako esparruaren barruan 2010erako laguntzak emateko deialdia iragartzen duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko apirilaren 15eko Aginduek turismoa dinamizatzeko laguntzak ezartzen ditu (EHAA, 2010eko maiatzaren 7koa). Agindu horren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bidezko da bertan finkatutako laguntzetarako deialdia egitea 2010eko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Adierazitako horrengatik honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Ebazpen honen bitartez, turismoa suspertzeko laguntzak ezartzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren aginduan aurreikusitako laguntzen 2010eko ekitaldirako laguntzen deialdia egiten da.

Horretarako 2.672.028 euro bideratuko dira gutxi, 2/2009 Legean (abenduaren 23koa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu) hartarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kargua.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du kreditu horien zenbatekoa edo hori eguneratzen ateratzen dena gainditzerik izango, indarreko legedian aurreikusitako aurrekontuen aldaketak onartzen diren kasuan, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik, eta kasuak kasu, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programetarako erabilitako diru-kopurutik dirua soberan geratzen bada, betiere diru-laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik. Merkataritza eta Turismoko Sailburuordetzaren ebazpenaren bitartez emango da horren berri.

2. artikulua.— Eskakizunak.

1.— Turismoa suspertzeko laguntzak ezartzen dituen aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2385

RESOLUCIÓN de 10 de mayo de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco fijado por la Orden por la que se establecen ayudas para la dinamización turística, para el ejercicio 2010.

La Orden de 15 de abril de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, establece ayudas para la dinamización turística (BOPV de 7 de mayo de 2010). De conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se recogen, para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas previstas en la Orden del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo, por la que se establecen ayudas para la dinamización turística.

Para este fin se destinará un total de 2.672.028 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euzkadi para el ejercicio 2010.

El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, y en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejería de Comercio y Turismo.

Artículo 2.— Requisitos.

1.— Las entidades solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden que establece ayu-

eskatzaileek erakunde onuradun izan beharko dute, agindu horren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez egin ahalko dira administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren arabera (22. zenbakiko EHAA, 2008ko urtarilaren 31koa). Kasu horretan, izapideak www.euskadi.net webgunearen bidez egingo dira, deialdi hau argitaratutakoan.

3.– Aurreko aukerarekin tartekatuz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan izapidetu ahalko dira eskaerak eta gainerako agiriak, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

4.– Eskaerak aurkezteko epea deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2010eko ekainaren 11n amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 10a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

das para la dinamización turística deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Orden de referencia.

2.– Las solicitudes se podrán efectuar por medios electrónicos, de conformidad con el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos (BOPV n.º 22, de 31 de enero de 2008). En este caso, los trámites se realizarán en la Web www.euskadi.net una vez publicada esta convocatoria.

3.– Alternativamente a la opción anterior, también se podrán tramitar las solicitudes y demás documentación complementaria en la correspondiente Delegación Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución de convocatoria, en el Boletín Oficial del País Vasco, y finalizará el día 11 de junio de 2010.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.